# 2022KO MAIATZAREN 18KO OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2022-05-18.
Hasiera ordua: 19:30.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:
EH BILDU
José Esteban Aguirre Zubieta
Maialen Chantre Irazoki
Patxi Castillo Graciarena
HERRIRAKO
José Antonio Oyarzabal Iribas
Raquel Quiroga Tapia

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:
Estibaliz Pinacho Olaciregui
Germán Castillo Lazcanotegui

ALDEZ AURRETIK JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:
Julen Errandonea Martin

ALKATEA (Bilkurako buru):
Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel José Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

## 1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2022/04/27). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

## 2. 7. POLIGONOKO 301. PARTZELAKO (ITZEA KARRIKA 8) XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Ikusirik:

- 7. poligonoko 301. partzelako —Itzea karrika 8— xehetasun azterlana, etxebizitza-blokeko eraikinaren mendebaldeko fatxadaren lerrokadurak eta bolumena aldatzeko igogailu bat jarri ahal izateko, arkitektura-oztopoak kentzea xede. Sustatazailea Comunidad de Propietarios Itzea karrika 8 da. Dokumentua Patxi Valer Goñi arkitektoak idatzi zuen.

- Nasuvinsako arkitektoak, Udaleko aholkulariak, 2022ko otsailaren 14an egindako

txostena, zeinak xehetasun azterlanari hasierako onespena ematearen aldeko iritzia eman baitu, behin betiko onartu aurretik dokumentazio gehigarria aurkezteko eskatuz.

- Udal idazkariak 2022ko otsailaren 23an egindako txosten juridikoa.

Kontuan izanda:

- Agiria hasiera batean onartu zela otsailaren 23ko 41/2022 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez.

- Espedientea jendaurrean jarri zela, iragarkiak argitaratuz NAOn, prentsan eta iragarki oholean.

- Espedientea jendaurrean egon zen epealdian ez zela alegaziorik aurkeztu.

- Sustatzaileak aurkeztu zuela xehetasunn azterlanaren eranskin bat Nafarroako Planeamenduaren Erregistroa eta Nafarroako hirigintza eta lurralde plangintzarako tresnak aurkezteko formatua arautzen dituen urriaren 16ko 253/2019 Foru Dekretuaren 9.2 c) artikuluak eskatzen duen informazio geografiko bektorialarekin, eta akaberak eta koloreak Itzea karrika kaleko 4. zenbakian erabilitako berdinak izango direla ezarrita.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63., 72. eta 74. artikuluekin bat etorriz,

**aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Behin betiko onespena ematea 7. poligonoko 301. partzelako —Itzea karrika 8— xehetasun azterlanari.

2. Behin betiko onespen hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari.

4. Erabaki hau helaraztea Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari, onartutako agiriarekin eta emandako txosten teknikoekin batera, gehienez ere 10 eguneko epean.

**3. 2022/7 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: KREDITU-GEHIGARRIA (ABELTZAINTZAKO AZPIEGITUREN MANTENTZEA). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak hainbat inbertsio egiteko asmoa duela mendi-pistetan.

- Martxoaren 14ko 62/2022 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2021eko Aurrekontuaren likidazioa.

BERAKO UDALA
herriko etxeko plaza, 1
31780 BERA
NAFARROA
tel. 948 630 005
IFK: P 31 25000D
www.bera.eus
bera@bera.eus

- Kontu-hartzailetzak 2022ko maiatzaren 4an egindako txostenak adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, kreditu-gehigarria, inbertsioak egin ahal izateko. Aipatzen du ondoko hau dela gehigarria behar duen gastu-partida:

1-4121-69200. Abeltzaintzako azpiegiturak mantentzea. 52.295,93 €.
Zenbatekoa, guztira: 52.295,93 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 52.295,93 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Hasierako onespena ematea 2022/7 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (kreditu-gehigarria).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**4. 2022/8 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUAK (DIRULAGUNTZAK LARUN HAIZPE ELKARTEARI ETA DENOK BAT FEDERAZIOARI; ELIKADURA-SISTEMA DINAMIZATZEKO HITZARMENA). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako krediturik.

- Kontu-hartzaileak 2022ko maiatzaren 13an egindako txostenak adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kredituak, gastu-partida hauetarako:

1-43110-48201. Dirulaguntza Larun Haizpe. 1.000,00 €.
1-43110-48202. Dirulaguntza Denok Bat: Top topa. 800,00 €.

1-41400-48200. Elikagaien dinamizatzailea. 3.200,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 5.000,00 €.

- Txosten horretan proposatzen duela finantzatzea kreditu bajarekin gastuen partida hauetan:
1-3270-22699. Memoria historikoa. 1.000,00 €.
1-2390-49000. Garapen bidean dauden herrialdeentzako dirulaguntza. 800,00 €.
1-1612-60900. Fibrozementuzko arteriak ordeztea hirigunean. 3.200,00 €.
Zenbatekoa, guztira, 5.000,00 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Hasierako onespena ematea 2022/8 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kredituak).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**5. 2022/9 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: KREDITU-GEHIGARRIA (HIRI-ALTZARIAK). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak hainbat inbertsio egiteko asmoa duela hiri-altzarietan.

- Martxoaren 14ko 62/2022 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2021eko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzailetzak 2022ko maiatzaren 16an egindako txostenak adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, kreditu-gehigarria, inbertsioak egin ahal izateko. Aipatzen du ondoko hau dela gehigarria behar duen gastu-partida:

1-15100-62500. Hiri-altzariak. 10.064,78 €.
Zenbatekoa, guztira: 10.064,78 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den

1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 10.064,78 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Hasierako onespena ematea 2022/9 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (kreditu-gehigarria).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

## 6. HERRI-LURREN APROBETXAMENDUEN ONURADUNEN ZERRENDA.

Ikusitrik:

- 2020ko uztailaren 30eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (168 zk.) argitaratu zela Berako herri-lurren aprobetxamenduak arautzen dituen udal ordenantzaren behin betiko onespena.

- Aipatutako ordenantzako 18. artikuluak honako hau diola: *"Berako Udalak esleitutako lur guztien erregistroa izanen du, onuradunen izen eta datu pertsonalekin, aprobetxamenduaren hedadura, kokalekua eta izandako aldaketak adierazita."*.

- Udal mendizainak herri-lurren aprobetxamenduen liburuetan erregistratuta zeuden aprobetxamenduak egiaztatzeko lan bat egin duela, azalera eta titulartasuna errealitatera egokitu eta GIS planoan jasoz.

Azaldutakoa oinarri hartuta, **aho batez**, legez eskatzen den gehiengo osoa, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Berako herri-lurren aprobetxamenduen onuradunen zerrenda hau onartzea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin :

| | | | | KOKAPENA | |
|---|---|---|---|---|---|
| ONURADUNA | ZENBAKIA | MOTA | M2 AZAL. | POL. | PARTZ. |
| 15774754C | IRAZELAIAK/4 | Ira-zelai | 4316,09 | 6 | 45 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 15774754C | LUBERRIAK /24 | Luberritzea | 13735,72 | 15 | 156 |
| 15774754C | LUBERRIAK/15 | Luberritzea | 10082,77 | 15 | 156 |
| 15774754C | LUBERRIAK/25 | Luberritzea | 18359,57 | 6 | 44 |
| 15824226L | ERLAUNTZAK/1 | Erlauntzak | 79,68 | 4 | 1008 |
| 15832384N | LUBERRIAK/83 | Luberritzea | 10972,77 | 7 | 116 |
| 15855392C | IRAZELAIAK/16 | Ira-zelai | 7713,25 | 15 | 159 |
| 15855392C | IRAZELAIAK/17 | Ira-zelai | 11295,96 | 6 | 963, 77 |
| 15855392C | IRAZELAIAK/18 | Ira-zelai | 4193,96 | 6 | 44 |
| 15855392C | IRAZELAIAK/19 | Ira-zelai | 2631,81 | 6 | 44 |
| 15855392C | IRAZELAIAK/20 | Ira-zelai | 2785,47 | 6 | 44 |
| 15855392C | LUBERRIAK/13 | Luberritzea | 12242,45 | 15 | 156 |
| 15855392C | LUBERRIAK/34 | Luberritzea | 13829,16 | 6 | 44 |
| 15860860Z | IRAZELAIAK/35 | Ira-zelai | 4998,34 | 7 | 196, 71 |
| 15931786P | IRAZELAIAK/54 | Ira-zelai | 9743,32 | 12 | 112 |
| 15931786P | LUBERRIAK/48 | Luberritzea | 23774,18 | 16 | 27 |
| 29153371C | LUBERRIAK/72 | Luberritzea | 14168,81 | 6 | 958 |
| 29153371C | LUBERRIAK/77 | Luberritzea | 10907,77 | 6 | 36, 966 |
| 29153371C | LUBERRIAK/78 | Luberritzea | 9208,75 | 6 | 37 |
| 33420379E | IRAZELAIAK/13 | Ira-zelai | 1843,68 | 15 | 167 |
| 33420379E | IRAZELAIAK/14 | Ira-zelai | 1150,57 | 15 | 168 |
| 33420379E | IRAZELAIAK/15 | Ira-zelai | 5524,87 | 16 | 961 |
| 33420379E | IRAZELAIAK/7 | Ira-zelai | 7983,62 | 15 | 162 |
| 33420379E | IRAZELAIAK/8 | Ira-zelai | 8128,87 | 15 | 167 |
| 33420379E | LUBERRIAK/53 | Luberritzea | 11892,60 | 15 | 163 |
| 33441138N | IRAZELAIAK/27 | Ira-zelai | 10267,22 | 12 | 150 |
| 33441138N | IRAZELAIAK/28 | Ira-zelai | 1647,65 | 16 | 26 |
| 33441138N | IRAZELAIAK/29 | Ira-zelai | 3152,65 | 16 | 27 |
| 33441138N | IRAZELAIAK/33 | Ira-zelai | 4428,82 | 15 | 122 |
| 33441138N | IRAZELAIAK/34 | Ira-zelai | 4166,16 | 15 | 122 |
| 33441138N | LUBERRIAK/45 | Luberritzea | 7914,72 | 12 | 150 |
| 33441139J (*) | IRAZELAIAK/38 | Ira-zelai | 17757,34 | 12 | 153 |
| 33441139J | SAGARDIAK/1 | Fruta-arbolak | 4400,99 | 16 | 24 |
| 33447758P | IRAZELAIAK/5 | Ira-zelai | 10409,03 | 15 | 121 |
| 33447758P | LUBERRIAK/16 | Luberritzea | 17782,08 | 15 | 121 |
| 33447758P | LUBERRIAK/17 | Luberritzea | 5790,12 | 15 | 121 |
| 44558486B | LUBERRIAK/10 | Luberritzea | 7905,59 | 15 | 159 |
| 44558486B | LUBERRIAK/67 | Luberritzea | 2659,73 | 6 | 963 |
| 44558486B | LUBERRIAK/68 | Luberritzea | 6857,69 | 6 | 963 |
| 44561267D | IRAZELAIAK/2 | Ira-zelai | 5090,62 | 8 | 952 |
| 44561267D | IRAZELAIAK/3 | Ira-zelai | 5443,16 | 8 | 71 |
| 44561267D | LUBERRIAK/18 | Luberritzea | 21861,45 | 8 | 952 |
| 44561267D | LUBERRIAK/19 | Luberritzea | 12196,34 | 8 | 71 |
| 44562527G | ERLAUNTZAK/2 | Erlauntzak | 130,29 | 2 | 11 |
| 44562527G | ERLAUNTZAK/3 | Erlauntzak | 94,70 | 6 | 43 |
| 44614587S | LUBERRIAK/2 | Luberritzea | 7271,80 | 2 | 11, 22, 23 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 44614587S | LUBERRIAK/5 | Luberritzea | 18251,87 | 2 | 29 |
| 44616965R | LUBERRIAK/56 | Luberritzea | 21742,71 | 16 | 25, 900 |
| 44616965R | LUBERRIAK/57 | Luberritzea | 13778,12 | 16 | 26 |
| 44616965R | LUBERRIAK/59 | Luberritzea | 14958,05 | 16 | 24 |
| 44616965R | LUBERRIAK/61 | Luberritzea | 33702,02 | 16 | 955, 23 |
| 44616965R | LUBERRIAK/66 | Luberritzea | 21563,79 | 16 | 22, 7, 902 |
| 44633672X | IRAZELAIAK/10 | Ira-zelai | 4724,53 | 16 | 961 |
| 44633672X | IRAZELAIAK/9 | Ira-zelai | 10812,22 | 15 | 163 |
| 44633672X | LUBERRIAK/30 | Luberritzea | 10715,62 | 15 | 163 |
| 44633672X | LUBERRIAK/52 | Luberritzea | 22855,63 | 15 | 163 |
| 44633672X | LUBERRIAK/54 | Luberritzea | 12880,37 | 15 | 163 |
| 72618778G | IRAZELAIAK/45 | Ira-zelai | 13532,26 | 12 | 154, 153 |
| 72624322M | LUBERRIAK/49 | Luberritzea | 17051,29 | 16 | 27 |
| 72624322M | LUBERRIAK/51 | Luberritzea | 7634,12 | 16 | 27 |
| 72639471C (*) | LUBERRIAK/3 | Luberritzea | 11333,78 | 4 | 12 |
| 72646125G (*) | LUBERRIAK/80 | Luberritzea | 3020,72 | 6 | 37 |
| 72648181J | UR DEPOSITOA/1 | Okupazioa | 23,08 | 4 | 17 |
| 72651545L | LUBERRIAK/47 | Luberritzea | 23222,14 | 16 | 27 |
| 72652613Y | FOSA SEPTIKOA/1 | Okupazioa | 6,07 | 15 | 156 |
| 72653332N | LUBERRIAK/50 | Luberritzea | 24207,49 | 16 | 27 |
| 72655833Y (*) | LUBERRIAK/1 | Luberritzea | 6975,79 | 2 | 10 |
| 72657642K | LUBERRIAK/75 | Luberritzea | 11683,84 | 6 | 41 |
| 72657674F | LUBERRIAK/26 | Luberritzea | 11028,35 | 4 | 1011 |
| 72657674F | LUBERRIAK/27 | Luberritzea | 11706,21 | 4 | 1011 |
| 72658215L | LUBERRIAK/40 | Luberritzea | 9032,74 | 7 | 196 |
| 72658215L | LUBERRIAK/41 | Luberritzea | 5001,56 | 7 | 196 |
| 72658215L | LUBERRIAK/81 | Luberritzea | 3592,65 | 6 | 959 |
| 72658215L | LUBERRIAK/86 | Luberritzea | 3992,82 | 6 | 37 |
| 72659072W (*) | LUBERRIAK/87 | Luberritzea | 3542,66 | 6 | 44 |
| 72659556A (*) | IRAZELAIAK/36 | Ira-zelai | 6244,99 | 12 | 151, 112 |
| 72659662V | LUBERRIAK/32 | Luberritzea | 4543,14 | 4 | 1008 |
| 72659662V | LUBERRIAK/9 | Luberritzea | 3135,81 | 4 | 16 |
| 72660895P | LUBERRIAK/62 | Luberritzea | 9432,04 | 4 | 16, 217 |
| 72661102P | LUBERRIAK/22 | Luberritzea | 34479,72 | 6 | 960 |
| 72661104X | LUBERRIAK/55 | Luberritzea | 63901,92 | 16 | 950, 964 |
| 72661111V (*) | LUBERRIAK/33 | Luberritzea | 9074,05 | 4 | 1011 |
| 72662525 M | IRAZELAIAK/22 | Ira-zelai | 4629,16 | 12 | 152 |
| 72662525 M | LUBERRIAK/29 | Luberritzea | 25212,21 | 15 | 163 |
| 72662688F | ERLAUNTZAK/7 | Erlauntzak | 44,82 | 6 | 958 |
| 72662688F | ERLAUNTZAK/8 | Erlauntzak | 18,37 | 1 | 1 |
| 72662688F | LUBERRIAK/73 | Luberritzea | 20198,20 | 6 | 41 |
| 72662688F | LUBERRIAK/74 | Luberritzea | 22177,19 | 6 | 41 |
| 72662798W | EKIPO ELEKTROGENOA/1 | Okupazioa | 3,40 | 4 | 17 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 72663370E | IRAZELAIAK/40 | Ira-zelai | 7166,08 | 15 | 168, 122 |
| 72663370E | IRAZELAIAK/41 | Ira-zelai | 15773,28 | 15 | 168, 122 |
| 72663421G | LUBERRIAK/46 | Luberritzea | 67418,08 | 16 | 27 |
| 72664839L (*) | LUBERRIAK/63 | Luberritzea | 6173,52 | 4 | 17 |
| 72664860V | LUBERRIAK/35 | Luberritzea | 6368,83 | 7 | 196 |
| 72666759F | IRAZELAIAK/21 | Ira-zelai | 10946,42 | 15 | 159 |
| 72666759F | IRAZELAIAK/6 | Ira-zelai | 14652,64 | 15 | 159, 162 |
| 72666759F | LUBERRIAK/14 | Luberritzea | 17443,41 | 6 | 45 |
| 72666823W (*) | LUBERRIAK/44 | Luberritzea | 46340,59 | 12 | 112 |
| 72667000H | LUBERRIAK/31 | Luberritzea | 69123,43 | 6 | 962 |
| 72667000H | LUBERRIAK/36 | Luberritzea | 19836,00 | 6 | 962 |
| 72667000H | LUBERRIAK/38 | Luberritzea | 10267,59 | 4 | 15 |
| 72667000H | LUBERRIAK/39 | Luberritzea | 7189,14 | 4 | 15 |
| 72667815M (*) | LUBERRIAK/65 | Luberritzea | 10487,48 | 6 | 44 |
| 72668129C | LUBERRIAK/69 | Luberritzea | 14988,43 | 6 | 34 |
| 72668129C | LUBERRIAK/7 | Luberritzea | 12819,24 | 6 | 969, 74 |
| 72668129C | LUBERRIAK/70 | Luberritzea | 8850,93 | 6 | 958 |
| 72668571W | IRAZELAIAK/1 | Ira-zelai | 7870,82 | 6 | 45 |
| 72668571W | IRAZELAIAK/31 | Ira-zelai | 13049,88 | 15 | 158 |
| 72668571W | IRAZELAIAK/32 | Ira-zelai | 5113,66 | 15 | 159 |
| 72669109B | LUBERRIAK/20 | Luberritzea | 7474,96 | 5 | 48, 950, 57 |
| 72669109B | LUBERRIAK/21 | Luberritzea | 29071,62 | 5 | 950 |
| 72669109B | LUBERRIAK/23 | Luberritzea | 4021,84 | 5 | 48, 950 |
| 72669351T | LUBERRIAK/11 | Luberritzea | 7272,64 | 6 | 968 |
| 72669351T | LUBERRIAK/12 | Luberritzea | 17178,69 | 6 | 45 |
| 72669351T | LUBERRIAK/8 | Luberritzea | 13995,60 | 15 | 157 |
| 72670935C | LUBERRIAK/85 | Luberritzea | 4445,92 | 16 | 22, 7 |
| 72671123R | LUBERRIAK/82 | Luberritzea | 22261,82 | 6 | 34 |
| 72673313Y | ERLAUNTZAK/4 | Erlauntzak | 46,64 | 15 | 122 |
| 72673313Y | ERLAUNTZAK/5 | Erlauntzak | 41,09 | 16 | 24 |
| 72673839A | LUBERRIAK/6 | Luberritzea | 7891,26 | 4 | 16 |
| 72674204T (*) | IRAZELAIAK/39 | Ira-zelai | 6540,60 | 12 | 153, 152 |
| 72674204T (*) | IRAZELAIAK/49 | Ira-zelai | 1315,44 | 12 | 151, 152 |
| 72674204T (*) | IRAZELAIAK/50 | Ira-zelai | 2864,85 | 12 | 151 |
| 72674204T (*) | IRAZELAIAK/51 | Ira-zelai | 4538,79 | 12 | 112 |
| 72675462Q | IRAZELAIAK/24 | Ira-zelai | 6350,96 | 4 | 16 |
| 72675462Q | IRAZELAIAK/25 | Ira-zelai | 3595,19 | 2 | 20 |
| 72675462Q | LUBERRIAK/37 | Luberritzea | 7686,08 | 6 | 960 |
| 72675784Q | LUBERRIAK/42 | Luberritzea | 6732,52 | 6 | 37, 959, 36 |
| 72675784Q | LUBERRIAK/79 | Luberritzea | 3150,43 | 6 | 37 |
| 72675990S | IRAZELAIAK 55 | Ira-zelai | 33015,54 | 12 | 153 |
| 72675990S | IRAZELAIAK/37 | Ira-zelai | 6361,56 | 12 | 153 |
| 72675990S | LUBERRIAK/58 | Luberritzea | 6483,06 | 12 | 152 |
| 72704748T | LUBERRIAK/4 | Luberritzea | 10049,87 | 4 | 12 |
| 74800700P | ERLAUNTZAK/6 | Erlauntzak | 32,07 | 2 | 27 |

2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 egun baliodunеko epean, iragarki oholean eta udal webgunean iragarkia argitaratu ostean.

3. Adieraztea alegaziorik ez badago, zerrenda behin betiko onartutzat joko dela. Alegaziorik aurkezten bada, Udalbatzak ebatziko ditu.

4. Nortasun Agiriaren ondoan * zeinua daramaten pertsonei 2023ko abenduaren 31n amaituko den epea ematea gutxieneko 3 ALUren baldintza erregularizatzeko.

5. Erabaki hau helaraztea interesdunei, eta adieraztea ezen, izapide hutseko egintza denez, ezin dela errekurtsorik jarri haren aurka.

**7. 2021EKO ABENDUAN GERTATUTAKO UHOLDEENGATIK KALTEAK IZAN ZITUZTEN PERTSONEN ZERGA SALBUESPENEN ESKAERAK.**

Ikusitrik:

- Lurralde Kohesiorako kontseilariak abenduaren 30ean emandako 81/2021 foru aginduaren bidez onetsi zela 2021eko abenduan Nafarroako Foru Komunitatean gertatutako ohiz kanpoko eurite eta uholdeek ukitutako udalerrien zerrenda, eta zehaztu zirela kalte horiek ukitutako pertsona fisiko eta juridikoek izan ditzaketen zerga salbuespenak eta horiek aplikatu dituzten udalerriei eman beharreko konpentsazioak.

- Udal honetan zerga salbuespenen 40 eskaera aurkeztu zirela (horietako bat epez kanpo aurkeztu zen).

- Epe barruan aurkeztutako 39 eskaeretatik, 1ek fakturak aurkeztu zituela, ondasunak aseguratuta ez zeudelako, eta gainerakoek berariaz baimendu zutela Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak Udalari informazioa ematea jasandako kalteen tasazioari eta dagokion kalte-ordainari buruz.

- Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak emandako informaziotik honako datu hauek ateratzen direla:

a) 26 eskabidetan erabaki da kalteen tasazioaren %100 ordaintzea.

b) 4 eskabidetan bakarrik, ordaindutako zenbatekoak ez du kalteen tasazioa estaltzen.

c) Gainerako 8 eskabideetan, edo tasazioa 0 eurokoa izan zen edo asegururik gabeko ondasunak ziren.

- Kontuan izanda Foru Agindu horren 8. puntuak eskaerak aurkezteko eta kalteak justifikatzeko modua ezartzen duela, eta 7. puntuak, berriz, honako hau diola: *"7. Laguntza hauek izenpetuak dauden aseguru polizetako konpentsazioen osagarriak eta ordezkoak dira, ordena horretan, baita Estatuaren edo Europar Batasunaren esparruan egon daitezkeen beste laguntza batzuen osagarri eta ordezkoak ere.*

*Kontzeptu horiengatik jasotakoa ez da inoiz izanen eragindako kalteen guztirako*

*zenbatekoa baino handiagoa.·.*

Azaldutakoaren arabera, eta udal idazkariaren txostenean adierazitakoa kontuan hartuta,

**aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Honako salbuespen eskaera hauek onestea, adierazitako zenbatekoen arabera:

| IFZ | ID. FINKA | ERREZIBOAK | KUOTA OSOA | ITZULPENA |
|---|---|---|---|---|
| 33427526Q | Pol. 9 / Parc. 289 | CONTRIB. 2021/001/907-3917 | 53,68 | 53,68 |
| 72618790Q | Pol. 9 / Parc. 173 | CONTRIB. 2021/001/189-3179 | 377,46 | 59,99 |
| 72618790Q | Pol. 9 / Parc. 173 | ICIO 2022/020/53 | 3072,00 | 3072,00 |
| 72657770B | Pol. 3 / Parc. 355-356 | CONTRIB. 2021/001/317-3307 | 2811,32 | 144,44 |
| 72657770B | Pol. 3 / Parc. 355-356 | ICIO 2022/020/56 | 2988,68 | 2988,68 |
| 72659898T | Pol. 9 / Parc. 358 | CONTRIB. 2021/001/80-3067 | 1093,12 | 135,02 |
| B31173735 | Pol. 3 / Parc. 282 | CONTRIB. 2021/001/1918-4945 | 892,92 | 440,38 |

2. Honako eskabide hauek ukatzea, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak kalteen tasazioaren %100 ordaindu duelako (Foru Aginduaren 7. puntua):

| IFZ/NIF |
|---|
| 14704609L |
| 14908098G |
| 15231550F |
| 15239411W |
| 15738751N |
| 15745893R |
| 15862207G |
| 16229950T |
| 16492319P |
| 17145778Z |
| 25857561H |
| 33438678J |
| 33449965F |
| 44556368D/ 33440808G |
| 72571532T/ 72661824V |
| 72639142J |
| 72641017W |
| 72646664Z |
| 72648183S |
| 72654449W |
| 726576830 |
| 72660215S |
| 72680295L |

| |
|---|
| 72680302A |
| H31339435 |
| H31444748 |

3. Honako eskabide hauek ukatzea, Partzuergoaren tasaziorik ez dagoelako eta/edo ondasunak aseguratuta ez daudelako eta kalteen zenbatekoa egiaztatu ez delako (Foru Aginduaren 8. puntua):

| NIF |
|---|
| 08845764X |
| 15862111T |
| 17430704Q |
| 33419303G |
| 33419304M |
| 34922532E |
| 72665765W |
| 72675373L |

4. Eskabide hau ukatzea, epez kanpo aurkeztu zelako (Foru Aginduaren 8. puntua): 72661713K.

5. Nafarroako Gobernuari eskatzea jaso ez diren zerga-sarrerak konpentsatzeko.

6. Erabaki hau jakinaraztea interesdunei.

**8. BORTZIRIAK-MALERREKA-BERTIZARANA ESKUALDEKO ELIKADURA-SISTEMA DINAMIZATZEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.**

Alkateak azaldu du Arantza, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Etxalar, Ezkurra, Igantzi, Ituren, Lesaka, Oitz, Sunbilla, Urrotz eta Zubietako udalek, Cederna Garalur elkarteko bazkide izanik, tokiko elikadura-sistemaren garapenean elkarrekin lan egiteko borondatea dutela, Bortziriak-Malerreka-Bertizaranako garapen sozioekonomikoan eragina izan dezan.

Goian aipatutako udalen interesa da eskura dauden baliabide komunak partekatzea eta erabiltzea baterako proiektuak eta ekimenak egiteko, batez ere lehen sektorea sustatzeari eta dinamizatzeari eta lurraldeko eragile publiko eta pribatuak koordinatzeari dagokienez. Lankidetza hori hitzarmen baten bidez antolatu behar da.

Gaia eztabaidatu ondoren:

**aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Bortziriak-Malerreka-Bertizarana eskualdeko elikadura-sistema dinamizatzeko lankidetza-hitzarmenaren testua onartzea, eta alkateari ematea agiria sinatzeko ahalmena.

2. Erabaki hau jakinaraztea Cederna Garalurri.

## 9. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B8/2022 zenbakidunetik B10/2022 zenbakidunera arte.

- Ebazpenak: 102/2022 zenbakiko Ebazpenetik (2022/04/27) 130/2022 zenbakiko Ebazpenera arte (2022/05/13).

## 10. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:25ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.